

LARREKO zanaren artikulo bat (1869-1949)

Paulo Fernin IRIGARAY sendakina eta eskal idazlari ezaguna izan zaren Irakurgaitxo jakingarri bat argitaratzen degu hemen, LARREKO EUSKARAZ IKASTEN izenburua duena, oraingo gazteek ere baliatuko dutelakoan.

Euskalerriko beste erri batara aldatu nintzalarik, leenengoan bi urtez egonik, non ta orduz geroz izan nituen umeeri euskaraz baliz ez nioten mintzaren ahal. Nere ume goiena, nik euskaraz ez nakielarik sortuak etzakien euskaraz, eta ondokoek etzakiten erdaraz; zaharrenak bere anakikin bereala ikasi zuen.

Horrek adiaratzen, umeenganik aisago eta lasterrago, beste izkuntzak bezala, euskara ere ikasten dela.

Nere umeotarik bat, lau edo bostz urtekoa, erdar-itzik etzakienak, eman zioten pilota batek bote motela zuela, behazue nola adiarazi zigun: ari zen lurrean bota eta bota eta huntan erran, **pilota hau eta eldu**: nor erran dezake euskara garbiagoaz?

Orduz geroz, errate batara, nere izkuntza bakarra, etxean eta atean euskara izandu zen. Orduko asi nintzalotzen euskaldun garbierri oharitzen; garbienak, emakume zaharretan aurkitzen nituen. Zenbat osakera politi bildu nituen orduan! Jakina, emakumea oharitu gabe.

Asia nintzen orduko euskaraz idazten, baiñu eskaldun berria nintzela azagutzen zidaten, euskarazko idazkietan nere gogoaz bazkatzen nuelarik; AXULARREN GVERO liburua, nik ezdakit zenbat aldiz irakurturik nagon; jakina, beste idazti asko izan ditudala ikasgaitako, berdin Españaldekoak nola mugaz haindikoa.

Erabili ditudan idaztiotarik, nere irizpideko, euskara garbiena eta mamitsuen derabiltanek, leonengo ogeita amar urtetako ESKUALDUNA'ren egileak: (HERRIA-ren aitzineko astekaria). Jainkoak daki zenbat urtez, aipatu lan horien mintzoari egon naizen oharitzen arriturik, heken jakinduri-ari ahoa zaballik.

Zeln politik Elissanburu handiaren Ipuin eta olerkiak Ipuinetan politena PIARRES ADAME. Gero daude ADEMA bi anaien olerki ederrak, DARRANATZ orofutulariarenak, SAINT PIERRE, OXOBI, Elissalde ZERBITZARI, DIHARASSARRY, LAFITTE, SOUBELET eta beste askoren irakurgai mamitsuak.

Ez pentsa gero, mugaz huna indian azdugula euskar-idazle onik; huna hemen, MOGEL, LIZARRAGA, Gregorio ARRUE, AGIRRE, MENDIBURU, oberoetarik, eta azken denboretan, Azkue, Aitube, Olabide, Urruzuno, Kirikiño, Orixe, Lauaxeta, Zamarripa, Enberita, Aranzadi, etc.

Gai huntarik bukatzeko, ezdu uste ziberotarrez zerbaiz erran gabe utzi ditekela. ESKUALDUNA astekarian leku berezi bat bazuten (eta HERRIA-n ere dute) beren euskalkarrendako. Gizon orneak eta buru argidunak direnez geroz, bere euskalkiak besteengandik bereixtasun handia badu; errokarikoaren etea badu, eta hunk bezala aberastasuna hiltzetan.

Besteetan erabiltzen ez diren hitz asko: baño Ziberonak bizirik uskara eta Errokarin hil urren. Bizkaliko euskalkian ere bada garbitasuna, eta ziberotararekin elkar ikusteko zerbaiz badu.

Euskalki guztien gainetik eta euskal idazle guztien buruan AXULAR handia dugu; eta bere omen handiko GVERO liburua da mamitsuena eta aboratsuna euskaraz, denen aburuz. Erran ditudanetan eta beste asko idaztietan nago nere izpiritua bazkatutik, eta eztaikela norairaino euskal-jundurik.

LARREKO

Julio Beobide



• Autorretratos

Gaiko luze baten ondorean, hil honen 11-an, joan zaigu Julio Beobide zumair irudigile aipatua (g. b.).

Zumala bertan jalo zen 1891-ko abenduaren 19-an eta mutikotatik zetorren arterako grinatua. Oraindik ezta denbora asko bere seme Joxe eta Manuel-ekin, Julok 18-20 urtekin egin zituen dibujoak ikusi nituela, batzuek bere buruz sortuak eta besteak Michelangelo-ren irudietarik kopiatuak. Estudioak utzi eta Gazteko katedrala bertara joan zen irudigile, handik San Fernando Akademiara, gero bertako tituludun egingo zana. Baina ikastarorik probetuzkoenak Bilbon Kintin de la Torre-ekin egin zituenak izango ziren noski.

Artistatik aparteko dohainik aski bazuen gizon honek. Umila eta jende umilaren maiztzailea, bereziki herriko arantzaleak eta marinela. Bero lana bere bizitzaren errazoi nagusiztat harturik choreak beragandik utxatuz blai zai bere barneko bekaradaren, egiten ari zen obra handiak garrantzirik eman gabe. Zumalako herriak berak ere asko maiztzen zuan Beobide, behar bada artista baino gehiago gizona eta gizontasuna. Horregaitik iduritzen zait, bere herriak, oraindik ez dakielako zer galdu duen, gizontasuna eta artista jenioa batean gordetzen zituen gizon honek. Maizenik, mondeak igarotzen dira herri batek horrelako gizon bat emateko, eta batzuetan ez da inoiz hiltzen horrelako bat munduzaren argira emateko ordu.

Bere gazte denboran Frantzia eta Italian ibili zen Europen orduan ziren eskultura eskolaik azagutuaz. Zuloaga eta P. Uranga ediskide egin zituelarik, hirurak elkarri usko lagundu zitoten artez eta artez kanpora. Eta artista zaharren artean errenazimentukoak zituen maite bereziki: Donatello, della Robbia, Verrocchio eta Buonarroti. Era berean Hernandez, Berruguete eta Montañés, baina ez gutxiho Euskal Herriko Antxieta eta Araoz. Eskulerez zenbat aldiz lgo ate zan Zumalako edo naiz Eibariko errotaletara bertako irudiak zehatz-mehatz ikustera?

A. Valverde-ri atsegin zaizkio bere eskutik irten diran haurren iru-

diak, baina artistak sendimenduzko indarrik izan badu, hauek, imajinen bidez adierazi ditu ondoren, batez ere «Kristo»-ren imajinetan. Zortzi-garrena edo badu bukatzeko utzi duen hazi (eskuak egitearen faltan), eta aipatuaren arteko Zuloaga etxearen Santigo kapillan dagoena, Getariako, Californian arkitzen dana, eta batez ere Santa Cruz del Valle de los Cedros-en dagoan irudi bakarra, Zuloagaren enkarzugeneralisimo-orontzat egina, geroago hara eraman bazuten ere. Gipuzkoako aiezotan sakabanaturik badira hanitz irudi, baina Anorga-ko elizak Beobide-ren museo txiki bat dirudi, zeren bi «Kristo» hobereetarik aparte beste lau irudiren jabe baita.

Hain langile burrutakua izan denaren lan guztiak katalogatzea ezinezko lana izango da baina lan hautsuekin, Julio zanak, ongi mazaiz da albion edor bat maila oneko idazlaren baten agerpena. Zeren, gizonak, hainbeste dibujatu bikatzen egiten dalarik, apaingarrik izango lirate artistaren hizitza eta lana adieraziaz. Bere sortketa gure kulturaren alderako eskeintza izan dalarik, zor-


dun gera berakin bildumazko liburu bat egiten etzaien bitartean. Eta, probintziako agintariak nor badira, orain dute une egokia Beobideren «Kresala» estudio bere museotzat antolatzeko, zeren oraindik han lan asko daude. «Kristo» bukatu gabea berne dalarik. Eta txas-hegaleko herriko bati ongi etor lezaito arte-kultura eta turismo indartzeko, eta guk geure sentitzen dugun artistaren obra zati bat etxean ikusiko genuke. Ahalduz horetakoren baten enzungo ahal nau. Galdu dugun gizontarenik beste ezer ez bait zaigu gelditzen, bere obretan itsatsirik utzi dituen bere arimaren zatik izan ezik. Eta zati hoiak gorde ez, zer geldituko zaigu? Geroago eta lausoago joango zaigun orofitza ezta aski. Gizona joan zaigularik, bere obra dugu. Zaindu eta gorde ahal bagezara oraingoen eta geroakoen irakasbiderako, ezta gutxi. Herria, mendeen joanez ez dedila kontura zer galdu duen. Gaurko maitsunlik sentikorenak iraungo ahal dute geroan ere. Hori nahiz gurek.

JUAN SAN MARTIN



• Kristo bukatu gabea

OLI-UREZKO ERAIKINAK
Grupos de accionamiento
oico-hidráulicos




Goimendi - Automatismo

DONOSTIA (HERRERA)
Lantegi ta landoak: Jolastokietan
Urrut. 5.3840 (3 linea) ta 5.1860
ERAKUSKETA: P. de Colón, 3-bis.
Urrut. 23456.

OLIO-INDAR SAILLA
Departamento
HIDRAULICO

GARBE-LAHMEYER.
WUPPERTAL-
ALEMANIA'ko
Eltxearen banaketa ta
teknika laguntza.

TXIMIST-INDAR
SAILLA
Departamento
ELECTRICIDAD



LANERAKO, BANAKETARAKO TA AGINTZEKO
TRESNAGINTZA
Aparatos de maniobra, distribución y control.

José Lizaso Bar Landeta

Zor nai, artistak erruz be-deu edanetan da janetan, ostatu onen sora zabaldu zaigu alderdi janetan. Zure zai beti zabalik dago; ez da traberik atetan, gorputza premiz dezun guzian sartu zaitze Landeta'n.

AZPEITI, LANDETA.
Urrutzikiña: 81-13-11

GUKELESA



Gipuzkoa'ko ta Nafarroa'ko esne onenak gortatutako esnekiak:
— Esne Pasturizatua
— Esne esilla (esterilizatua)
— Esne outsa
— Esne-yalfo
— Gurña
— Yogur
— Batiñusk

Igara suzoz - Apart. 213 - Urrut. 29060 (lau ari) — DONOSTIA

BLAS DE LEZO

ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINEKOAK
ETA EDARI GUZTIZTATIK
Blas de Lezo Kalea, 6 Urrutzikiña: 10065
— DONOSTIA —